

AUKERAKO
LURRALDEA
ELIKADURA
SEKTOREARENTZAT

euskadi.eus

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



3

**EUSKADIREN
DATU NAGUSIAK**

5

**EUSKADIREN
DESKRIBAPENA
HERRIALDEAREN
IKUSPUNTUA**

6

**EUSKADIKO
ELIKAGAIGINTZA-
SEKTOREAREN
EGOERA ETA
AUKERAK****06.** Apustua eta laguntza
instituzionala.

7

**EUSKADIKO
ELIKADURAREN
BALIO-KATEA**

- 07.** Testuingurua.
- 07.** Egituraketa azpisektoreak.
- 08.** Lehengaien hornitzaile potentzialak.
- 08.** Euskadiko elikagaikontsumoa eta autohornikuntza-maila.
- 08.** Kalitate-ziurtagiriak.
- 09.** Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana (NEKKOP).

10

**EUSKAL EKOSISTEMA
MUNDUARI
PROIEKTATUTA:
THE FOOD GLOBAL
ECOSYSTEM**

- 10.** Harrera eta aholkularitzako erakunde publikoa.
- 11.** Zientziako eta Teknologiako Euskal Sarea.
- 12.** Teknologia Zentro Espezializatuak.
- 13.** Ekintzaitzari laguntzeko beste zerbitzu batzuk
- 14.** Beste plataforma teknologiko batzuk.
- 14.** Unibertsitate eta lanbide prestakuntza.
- 16.** Enpresa-klusterra.
- 16.** Lotutako laguntza publikoko beste zerbitzu batzuk.

20

**KONEKTAGARRITA-
SUNA ETA LOGISTIKA**

- 20.** Ezartzeko azpiegiturak.
- 21.** Eremu estrategikoak.
- 21.** Eremu logistikoak.

Gehiago eta hobeto elkar ezagutzeko



euskadi.eus

onekin@hazi.eus

22

**LAGUNTZA
INSTITUZIONALA**

- 22.** Esparru instituzionala.
- 23.** Inbertsiorako laguntza publikoak.
- 25.** Inbertsio-funtsak.
- 26.** Pizgarri eta kenkari fiskalak.

28

**BIZITZEKO
HERRIALDE BAT**

1.0

EUSKADIREN DATU NAGUSIAK

AZALERA

7.234 km².

BIZTANLERIA

2.193.199 biztanle.

DENTSITATEA

300 pertsona/km².

BPGD PER CAPITA

36.282 €.

BPGD INDUSTRIALA

% 23,9 (UE28: % 19,3).

2.010 KONPAINIA NAZIOARTEKOTU DIRA.

% 32,1 Esportazioak/BPG erlazioa.

EUSKADI EBN LANGILE BAKOITZEKO PRODUKTIBITATE HANDIENA DUEN ESKUALDEETAKO BAT DA

121 (UE28: 100).

I+G+B ARLOKO INBERTSIOA

% 2,08 BPGdaren gainean.
19.274 ikerlari.

GIZA GARAPENAREN INDIZEA



0,937.

BASO-AZALERA

% 54.

LANBIDE HEZIKETA MAILA ALTUA

Zifra nagusiak





ENERGIA

63.364 Enpleguak

21.185 EAEn

46.811 M€

15.032 M€ EAEn

Dinamismo handiko klusterra.

IBERDROLA, SIEMENS, GAMESA, GE, PETRONOR



MAKINERIA ETA ERREMINTAK

12.672 Enpleguak

1.731 M€

EBko hirugarren ekoizlerik handiena.

AFM, ADIMMAT, BIEMH. DANOBAT, ZAYER



ELEKTRONIKA ETA IKTak

20.047 Enpleguak

5.175 M€

Hub elektronika integralean, informatikan eta telekomunikazioetan

ZTE, IBERMATICA, EUSKALTEL



AEROESPAZIALA

14.856 Enpleguak

4.985 EAEn

2.457 M€

990 M€ en la CAE

Hegan Cluster: balio-katea.

ITP, ROLLS ROYCE, AERNOVA, SENER, CFAA



AUTOMOTORRA

100.000 Enpleguak

40.924 EAEn

19.311 M€

Espainiako >% 50 osagaien industria.

GESTAMP, CIE, MERCEDES BENZ, BRIDGESTONE



TRENBIDEA

14.176 Enpleguak

2.600 M€

Aitzindarienetako bat.

MAFEX CLUSTER CAF, TALGO, BOMBARDIER



BIO-OSASUNA

8.000 Enpleguak

1.700 M€

Euskal bioeskualdea: Unibertsitatearen, Osasun Sistemaren eta Industriaren arteko lankidetzak.

FAES PHARMA, PRAXIS, PROGENIKA-GRIFFOLS, ROXALL



NEKAZARITZAKO ELIKADURA

137.480 Enpleguak

4.400 M€

105 enpresa elkartuta

Lotura estua elikagaien industriaren eta tokiko ekoizleen artean, jatorri- eta kalitate-ziurtagiri ofizialekin.



EKOINDUSTRIAK

20.000 Enpleguak

4.000 M€

Erreferentziatzeko lurraldea Ekoindustrietan eta Ekonomia Zirkularrean Clúster ACLIMA / Centro Vasco de Ecodiseño.

INDUMENTAL RECYCLING, IDOM, ACCIONA AGUA

INDUSTRIA, EUSKAL EKONOMIAREN MOTORRA

34.273 €

Per capita sarrera.

24%

BPGri egindako ekarpen industrialak.

I+G+b nazioartekotzean.

Industria 4.0.

Klusterren politika.

Espezializazio adimenduneko estrategia (RIS3), honako hauetan oinarrituta:

- Industria adimentsua.
- Osasun pertsonalizatua.
- Energia garbiagoa.



2.0


EUSKADIREN DESKRIBAPENA HERRIALDEAREN IKUSPUNTUA

Euskadi Europako tamaina ertaineko hoberen konektatutako eskualdea da (*Financial Times*, 2016). Halaber, Estatuko industria-metatze handienetariko bat du, eta bere kalitate- eta produktibitate-mailek Europako lehen tokietan kokatzen dute.

Esperientziatik eta tradizioz abiatuta, Euskadi erabat globalizatutako eta industrializatutako ekonomian lehiakortasunerako lasterketan murgilduta dago; izan ere, 5.000 enpresa baino gehiagok kalitate-egiaztagiri gorenak dituzte.

Merkataritzaehuna konprometituari eta industriapolitika serioaren aldeko apustu instituzional irmoari esker, Euskadi mundu-mailako erreferentzia bihurtu da hainbat industriasektoretan, hala nola makineria berria, automobilgintza, aeronautika, energia, itsas eta trenbide-industriak eta ekoindustriak.

Euskadin elikaduraren baliokate osoa BPGdaren % 9,37 da. Elikadura da Europar Batasunak aukeratu duen erronka estrategiko nagusietako bat, eta euskal administrazioa horren aldeko apustu sendoa egiten ari da, Euskadin gastronomia- eta elikagaigintza-arloko herrialde-estrategia abian jarri. Horretarako elikagaigintzaren berrikuntza eta elikagaigintzaren digitalizazioa sustatu ditu.



3.0

EUSKADIKO ELIKAGAIGINTZA- SEKTOREAREN EGOERA ETA AUKERAK

3.1

Apustua eta laguntza instituzionala

Balioa sortzeko espezializazioaren aldeko apustua, gero eta eraginkorragoak diren prozesuen bidez:

- Ekoizpenekosistema seguruagoak, jasangarriagoak eta osasungarriagoak.
- Zerbitzu- eta produktu-sorta berri bat garatzea, elikadura-osasuna binomioaz gero eta ardura gehiago hartzen duen gizartearentzat.
- Teknologia digital eta bioteknologia berriak sartzea.

Elikaduraren baliokatea sustatzea, ekoizpen primario-tik elikagai osasungarrien kontsumoraino; elikagaiak kontsumitzen dituzten pertsonak baliokatearen erdian kokatzea eta sinergiak eta interrelazioak bilatzea beste sektore ekonomiko, kultural eta sozialekin.

Euskadin ageriko aukerak daude, hala nola trantsizio teknologikodigitalari lotuta, bereziki IKTen sektoreko enpresen eta eragileen kasuan, honako mundu-mailako erronka hauei lotuta:

- Energiatransizio klimatikoa.
- Elikagaien xahuketa.
- Elikadura-azpiproduktuak berreskuratzea eta balioztatzea.
- Giza eta osasun-trantsizioa.

Euskadiren helburua da gastronomia eta elikagaigintza sustatzea, bultzatzea eta garatzea, Euskadiko ekonomia-rako sektore estrategikoa bihurtu dadin, hainbat arrazoiengatik: lana eta jardura ekonomikoa sortzea eta ondare kultural gastronomikoa, baliabide naturalak eta paisaiabaliabideak mantentzea.

Horretarako, 2021-2024 aldian elikakatera bideratutako inbertsioa 1.165 milioi euro baino gehiagokoa izan daiteke. Gastu publiko osoa 480 milioi eurokoa izan daiteke, **Next Generation Programaren** barruko jarduketak kontuan hartuta.

4.0

EUSKADIKO ELIKADURAREN BALIO-KATEA

4.1

Testuingurua

Euskadiko elikaduraren balio kateak ekoizpen primarioa eta banaketa, jatetxeak eta ostalaritza eta azken kontsumitzailea biltzen ditu. Katearen lehiakortasuna beste eragile batzuen presentziak indartzen du, besteak beste honako gai hauei lotuta: industria osagarria (*ontzia eta ontziratzea, makineria eta ekipo-ondasunak, etab.*) eta laguntza zerbitzuak ematea. Gainera, sektoreak inguruko eragile garrantzitsuekin harreman estua du, eta azpimarratzekoak dira Administrazio Publikoak, eragile zientifiko-teknologikoak eta Administrazioaren mendeko beste erakunde batzuk.

Euskadiko elikaduraren balio katearen papera estrategikoa da euskal ekonomian, BPGd eta sortutako enpleguan duen pisuagatiko trakzio efektuaren eraginaren ondorioz, baina baita berrikuntzan, kulturen, gastronomian eta turismoan duen ekarpen handigatik ere.

4.2

Egituraketa azpisektoreka

Euskadiko elikaduraren balio katea Euskadiko 2021eko BPGdaren % 9,37 izan zen. Lehen sektorea % 7,36 da, eta elikagaien eta edarien industria, berriz, % 16,12. Ostalaritza eta merkataritza dira sektore garrantzitsuenak, % 31,38 eta % 27,75, hurrenez hurren. Azkenik, adar ez bereizgarriak % 11,53 eta garraioak % 5,76.

GARRAIOAREN LOGISTIKA



EKOIZPENA
I+G AHOLKULARITZA
Lehengaiak.
Produktu espezializatua



INDUSTRIA
EZAGUTZA
I+G ZIURTAGIRIAK
Makineria. Erreminta.
Paketatzea.



KOMERTZIALIZAZIOA
ZERBITZUAK EZAGUTZA
Banaketa handia.
Dendak.



OSTALARITZA
I+G EZAGUTZA
Industria.
Marka.
Komunikazioa



TURISMOA
ZERBITZUAK
Industria. Produktuak.
Azpiegiturak. Ekitaldiak.

4.3

Lehengaien hornitzaile potentzialak

EAEko nekazaritza-industria mugatua da, baina azpisektore batzuetan ekoizpen-kooperatibak daude, eta nolabaiteko masa kritikoa lortzen dute instala daitezkeen enpresentzat lehengaien hornitzaile gisa aritzeko:

ZEREALA

Garlan S.Coop.

BARAZKIAK

Garaia S.Coop; Barrenetxe S.Coop.

PATATA

Udapa S Coop.

ERRIOXAKO ARDOA

Bodega Unión de Cosecheros de Labastida S. Coop; Bodega vinícola Lapuebla de Labarca S. Coop.

HARAGITAKO BEHIA

Urkaiko S.Coop.

BEHIESNEA

Kaiku S Coop.

IDIAZABAL GAZTA

Artzai Gazta S. Coop.

ARRAUTZAK

OVO12 S. Coop.

KONTSERBARAKO ARRAINA

Bermeo, Ondarroa, Getaria eta Pasaiaiko lonjak.

4.4

Euskadiko elikagaikontsumoa eta autohornikuntza-maila

Euskadin bi milioi kontsumitzaile daude, gehi turismoak eragindako beste 2,5 milioi bisitari potentzial urtean.

Euskal kontsumitzaileak erosteko ahalmen handia du, zorrotza, eta kalitatea maite du. Kontsumitzailearentzako gastronomia artea eta bizitzeko modu bat da, eguneroko kulturaren eta mundu-mailan ezaguna den gastronomian nabarmena dena.

Bestalde, Euskadi bisitatzen duten turistek erosteko ahalmen handia dute, eta neurri handi batean eskaintza gastronomikoak eta sukaldaritzak erakarrira bisitatzen gaituzte.

Horrek guztiak barne-kontsumorako euskarri garrantzitsua ematen dio Euskadin finkatzen den edozein elikagai-enpresari.

Euskadin, 2020an, erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAPak) per capita BPGd EB-27KO batezbestekoa baino % 12 handiagoa da, eta Espainian baino % 30 handiagoa, Eustaten arabera:

Pertsona bakoitzeko batez besteko gastua	Espainia	Euskadi	Euskadi / Espainia
01.1T Elikagaiak	1.715,19	2.063,68	1,20
01.2T Edari ez alkoholduak	124,82	98,81	0,79
02.1T Edari alkoholduak	98,77	120,25	1,22
11.1T Jatetxeak eta jantokiak	626,18	803,72	1,28

Elikagaietan pertsona bakoitzeko batez besteko gastua Euskadin % 20 handiagoa da Espainian baino. Edari alkoholduen kasuan % 22 gehiago, eta jatetxeetan % 28 gehiago, 2020ko Familia Aurrekontuen Inkestaren (INE) arabera:

4.5

Kalitate-ziurtagiriak

7 jatorri deitura eta Identifikazio Geografiko Babestu daude EAEn:

EUSKAL SAGARDOA
SIDRA NATURAL DEL PAÍS VASCO

ARABAKO TXAKOLINA
TXAKOLI DE ÁLAVA / CHACOLÍ DE ALAVA

BIZKAIKO TXAKOLINA
TXAKOLI DE BIZKAIA / CHACOLÍ DE BIZKAIA

GETARIAKO TXAKOLINA
TXAKOLI DE GETARIA / CHACOLÍ DE GETARIA

ERRIOXA ARDOA

IDIAZABAL GAZTA

CAVA

EAEn 2 Identifikazio Geografiko daude:

EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAÍS VASCO

GERNIKAKO PIPERRA
PIMIENTO DE GERNIKA

Ekoizpen Ekologiko Ziurtatua.

Eusko Label kalitate marka babestutako nekazaritza-produktu hauetan:

EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAÍS VASCO

EUSKAL BASERRIKO ARRAUTZA
HUEVO DE CASERÍO VASCO

EUSKAL BASERRIKO OILASKOA
POLLO DE CASERÍO VASCO

EUSKAL ESNE BILDOTSA
CORDERO LECHAL DEL PAÍS VASCO

HEGALUZZEA ETA HEGALABURRA
BONITO DEL NORTE Y ATÚN ROJO

EUSKAL ESNEA
LECHE DEL PAÍS VASCO

EUSKAL EZTIA
MIEL DEL PAÍS VASCO

ARABAKO PATATA
PATATA DE ALAVA

IBARRAKO PIPARRAK
GUINDILLAS DE IBARRA

KALITATEKO EUSKAL TOMATEA
TOMATE DEL PAÍS VASCO

EUSKAL BABARRUNAK
ALUBIAS DEL PAÍS VASCO

EUSKAL LETXUGA
LECHUGA DEL PAÍS VASCO

OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA
ACEITE DE OLIVA VIRGEN EXTRA

BASERRIKO TXERRIA
CERDO DE CASERÍO

EUSKAL BASERRI

EUSKADIKO KANTAUERIKO ANTIXOA
ANCHOA DEL CANTÁBRICO DEL PAÍS VASCO

EUSKADIKO KANTAUERIKO HEGALUZZEA
BONITO DEL CANTÁBRICO DEL PAÍS VASCO

Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana (NEKKOP)

Elika

Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa Euskadin elikadura seguruagoa, osasungarriagoa eta jasangarriagoa lortzeko ezagutza aditua eskaintzen duen erakundea da, eta euskal elikagaien ekosistemako eragile guztien arteko lankidetzeta ahalbidetzen du. **Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Planaren** ezinbesteko alderdia da. Planak Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza eta Elikagaien sektoreak hartzen ditu barne, Europako legeesparrua eta administrazio zentralak ezartzen dituen oinarriak kontuan hartuta, baina Euskadiko elikagaiak ekoizteko sistemen errealitatera egokituz.

Arau hauek ere barne hartzen dira:

- Zaintza Teknologikoko eta Adimen Lehiakorreko Sistema (*UNE 166.006 Arauko ziurtagiriak 2012az geroztik*).
- HON-Code ziurtagiriak (*informazioaren kalitatea eta egiazkotasuna*).
- WIS (*interes sanitarioko webgunea*).



5.0

EUSKAL EKOSISTEMA MUNDUARI PROIEKTATUTA: THE FOOD GLOBAL ECOSYSTEM

Euskadin *“The Food Global Ecosystem”* izeneko ekimen bat dago; plataforma publiko-pribatua da, eta lidergo publikotik enpresagarapenerako tresnak eta agertokiak azeleratu eta ematen ditu. Hori lortzen du berrikuntza-ko, ekintzailtzako, digitalizazioko eta Lanbide Heziketako gaitasunak koordinatuz, dauden eragileen gainean, eta talentua eta atzerriko inbertsioak erakartzeko.

TFGE herrialdearen eskaintza global gisa aurkezten da, baina lurralde-ezarpen deslokalizatu batekin ere, berrikuntzanodo desberdinetan. Nodo horiek egoitza, leku eta zerbitzuen arteko koordinazio osoa ahalbidetuko dute, eta aldi berean aberastasunerako, eragileen dibertsitaterako eta eskaintzen den azkeneko zerbitzua hobetzeko aukera da.

TFGE: aktiboak eta balioproposamena

Euskadik gaitasun zientifiko, teknologiko eta enpresarialak ditu bere ahaleginak ardazteko eta elikaduraren sektorean mundu-mailako lidergo-posizioetan sartzeko.

Berrikuntzaren aldeko apustua Euskadiren ezaugarria da; izan ere, apustu horrek Europako eremuan aitorpena eta baliabideak ahalbidetu ditu. Euskadi da I+G arlora BPGdeko ehunekorik handiena bideratzen duen autonomiaerkidegoa, % 2,08, hain zuzen ere.

Euskadik gaitasun zientifiko, teknologiko eta enpresarialak ditu, baita enpresasare ezagunera lotutako horiek ere, bere ahaleginak ardazteko eta elikaduraren sektorean mundu-mailako lidergo-posizioetan sartzeko.

5.1

Harrera eta aholkularitzako erakunde publikoa

HAZI Fundazioa Eusko Jaurlaritzaren erakunde instrumentala da. Elikagaien eta basoen baliokatearen lehia-kortasuna eta jasangarritasuna sustatzeko proiektu estrategikoak koordinatu eta katalizatzeaz gain, Euskadiko landa nahiz itsasertzeko ingurua dinamizatzea du helburu.

- Elikagaien eta basoen baliokatean edo landa nahiz itsasertzeko inguruan lan egiten duten pertsonen profesionaltasuna, gaitzea, lehiakortasuna eta etengabeko hobekuntza eskaintzea. Erronka berrietara egokitzeko eta dituzten beharretan laguntzeko zerbitzu integrala eskaintzea: jarduera berriak sortzea, jarduera dibertsifikatzea, eskaera bidezko prestakuntza, lankidetzako berrikuntza, prozesuak digitalizatzea, etab.
- Nekazaritzako elikagaien kalitatea eta jatorria bermatzea. Horretarako produktu horiek kontrolatu eta ziurtatzen dira, eta markak sustatzen eta bultzatzen dira, horiek merkatuetan hobeto kokatzeko.
- Elkarri lotutako administrazio elektronikoa laguntzea, sarbide erraza, modernoa eta integratua izango duena, eta erabiltzaileei erantzun arina eta erabilgarria emango diena. Administrazio-prozedurak hobetzeko helburuarekin HAZIk Nekazaritza Politika Erkideari lotutako aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuak eskaintzen ditu, eta horiek ezarri eta jarraitzen ditu. Gainera, plan sektorialak garatu eta dinamizatzen ditu, eta administrazioen berrikuntza eta ezagutza sustatzen du informazioaren analisiaren eta aurrerapen sektorialerako estrategiak planteatuz.
- Lurralde-garapen orekatua lortzea eta landa-eremuetako eta arrantzaren mendeko eremuetako hobekuntza sozioekonomikoak sustatzea, administrazioekin eta tokiko eragileekin lankidetzan parte hartzeko prozesuen bidez. Horretarako garapenestrategia eta planak ezartzeko laguntza eskaintzen du, lurraldekoherioa eta berrikuntza soziala sustatuz.
- Garapen jasangarrirako helburuekin bat eginez, nekazaritza-jardueraren ingurumenosotasuna hobetzeko eta naturaguneen erabilera jasangarria eta iraunkorra sustatzeko proiektuak laguntzen ditu, planifikazio- eta kudeaketa-prozesuan lagunduz.
- Nazioarteko zaintza-lanak egitea sektorearen arloko berrikuntzen jarraipena egiteko, Europako proiektuen garapena sustatzeko eta sarekooperazioa, beste eskualde batzuekiko jakintza eta erronka komunak partekatzeke.

ONekin! Programaren barruan, HAZIK honako zerbitzu hauek koordinatu eta eskaintzen dizkie enpresei, erakundeei edota aipatutako esparruari lotutako ekintzailtza-, berrikuntza- eta digitalizazio-proiektuak sustatzen dituzten pertsoneri.

- Ekintzailtza, berrikuntza, digitalizazioa, belaunaldien erreleboa edo lehiakortasuna hobetzeko proiektuen analisia eta laguntza; bananbanan eta jakintzaalor anitzeko moduan, betiere elikaduraren eta zuraren baliokateari lotuta badaude edo landaedo itsasertzingurunean egin behar badira.
- Sektoe-, prestakuntza-, teknologia- eta merkatu-gomendioak dituzten proiektuei laguntzea.
- Administrazioarekiko harremanetan laguntzea, programa alternatibak eta dauden laguntzak eskainiz.

- Baliokateko eragileekiko harremana eta erlazioa erraztea, inbertsioalternatibak bilatzeko, kokapen egokia edo banatzaileak aurkitzeko, etab.
- ONekin! komunitatean sareak eta harremanak sortzea sinergiak laguntzeko, hala nola HAZIK antolatutako eta/edo lagundutako ekitaldietarako gonbidapenak edo ekintzailtzejardueratan parte hartzea.
- Sektoearen errealitatea biztanletalde desberdinetara hurbiltzea eta lurraldea bizirik eta aktibo mantentzeko beharrari buruz sentibilizatzea. Egiten duten lanari buruz kontzientziatzea; elikagaiak hornitzean, gure historia, lurraldearen eta itsasoaren orainaldia eta etorkizuna, paisaia eta kultura babesten, eta lan horri sozialki nola erantzun jakin.

Honako esparru hauetan:



DIGITALIZAZIOA

Elikaduraren eta zuraren katearen eraldaketa digitala laguntzea



BERRIKUNTZA

Enpresa-berrikuntzako proiektuak lankidetzan sustatzea helburu duten gune eta dinamikak



EKINTZAILTZA

Proiektuak abiaraztean laguntzea, modu integral eta pertsonalizatuan.



FOOD INVEST IN

Lurraldean potentzial handiko eta/edo inbertsio teknologikoak sustatzea.



PRESTAKUNTZA

Gaitasunak etengabe eskuratzea eta eguneratzea sustatzea.



BASOA ETA ZURA

Baso-bioekonomia sustatzea katearen begi guztien bidez.

5.2

Zientziako eta Teknologiako Euskal Sarea

Zientziako, Teknologiako eta Berrikuntzako Euskal Sarea Zientzia eta Teknologia arloko eragileen talde bat da, sarean lan eginez Euskadin aberastasuna eta ongizatea sortzen laguntzen duen ikerketa espezializatua, bikaina eta merkatura bideratua garatzen dute.

Sarea egiaztatutako 120 eragilek osatzen dute: eragile bereziak, Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroak (BERC), unibertsitateen ikerketaegiturak, Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ), Teknologia Zentro Multifokaliza-


tuak, Teknologia Zentro Sektorialak, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren zabalkunderako eragileak, Eskaintza-Eskari Bitartekotza Eragileak, Enpresako I+G erakundeak, Osasungintzako I+G Erakundeak eta Osasunikerretarako Institutuak.

Euskadik azpiegitura teknologikoen mapa osoa dauka enpresaren eskura: unibertsitateak, ospitaleak, ikerketa bikaintasunzentroak, ikerketa kooperatiboko zentroak, teknologia zentroak, etab.

Euskadi, lehiakortasunaren abangoardian

Eskualdeko Lehiakortasunaren Indizea

- EBko batez bestekoa
- Euskadiko Eskualdea



Teknologia Zentro Especializatuak

BRTA: Basque Research & Technology Alliance

17 teknologia zentrok eta ikerketa kooperatiboko zentrok osatzen dute: Azterlan, Azti, Ceit, CIC bioGUNE, CIC bio-maGUNE, CIC energiGUNE, CIC nanoGUNE, Cidetec, Gaiker, Ideko, Ikerlan, Leartiker, Lortek, Neiker, Tecnalía, Tekniker eta Vicomtech, Eusko Jaurlaritzak, SPRIk eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako forualdundiek lagunduta.

Helburua da ikerketa eta teknologia lankidetzan garatzea. Aliantza horren bidez Euskadiko erronka sozioekonomikoei erantzuna ematen zaie, ikerketaren eta teknologiaren bitartez, nazioarteko proiektioa kontuan hartuz. Hau da, jakintza sortzeko lankidetzan ari dira, euskal gizarteari eta industriari jakinarazteko, horrela berritzaileagoak eta lehiakorragoak izango direlakoan. Horretarako 3.700 ikerlari inguru eta 300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa ditu. Horri esker, urtero 1.300 argitalpen zientifiko eta 100 patente inguru sortzen dira.

BRTAren parte diren honako erakunde hauek azpimarratzen ditugu:

Neiker

Basque Research & Technology Allianceko (BRTA) kidea da, eta nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektoretarako konponbide berritzaileak sortzen dituen zentro teknologikoa da. NEIKERreko lanildo nagusiak honako hauek dira: sektorearen barruko 4.0 nekazaritza sustatzea, ustiapenetako jasangarritasuna eta lehiakortasuna garatzea, larrialdi klimatikoak nekazaritzan eta abeltzaintzan dituen ondorioak arintzeko alternatibak bilatzea eta bioekonomia sustatzea. Eta hori guztia One Health ikuspegiaren barruan: animalien, ingurunearen eta pertsonen interrelazioa zeharka jorratuz. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendeko erakundea da, eta, hortaz, NEIKER-ren jarduera Eusko Jaurlaritzak Euskadiko nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektorea sustatzeko, garatzeko eta kudeatzeko diseinatzen dituen estrategiei erantzuna ematera eta laguntzera bideratuta dago.

Azti

Teknologiako eta zientziako zentroa da, eta Basque Research & Technology Allianceko (BRTA) kidea da. Nazio Batuen GJHeKin bat datozen erakundeekin eragin handiko eraldaketa-proiektuak garatzen ditu. Helburua pertsonen etorkizunerako aldaketa positiboa sustatzea da, gizarte osasuntsu, jasangarri eta zuzena sortzeko. Itsas ingurunean eta elikagaigintzan adituak dira, eta zientzian eta ikerketa sendoan oinarritutako balio erantsiko eta abangoardiako produktuak eta teknologiak eskaintzen dituzte.

Mundu-mailako 10 institutu hobereenetan kokatuta daude zientziaekoizpenaren Kalitate Indizearen arabera. Gainera, Europako batzorde zientifiko garrantzitsuenetariko batzuetan parte hartzen du, eta horietako batzuen buru da. Gainera, zentro teknologiko espezializatu eta bikaina da, ZTBESaren eta CIT erregistroaren adierazleak betetzen dituena.

Basque Culinary Center (aurrerantzean BCC)

2011ko irailean sortu zenetik, ekosistema paregabea da, eta bertan prestakuntzak, berrikuntzak, ikerketak eta ekintzailtzak bat egiten dute, gastronomia (*jaten dugunari eta jaten dugun moduari buruzko ezagutza arrazoitu gisa*) garatzeko eta sustatzeko. Erakunde aitzindaria da, eta Gastronomia Zientzien Fakultateak eta BCC Innovation-ek (*Gastronomiako Zentro Teknologikoa*) osatzen dute.

Basque Culinary Centerren patronatua chefek, erakundeek eta enpresek osatzen dute, eta erakundearen kudeaketa-organoa osatzen du. Era berean, Basque Culinary Centerren Nazioarteko Kontseiluan nazioarteko chef garrantzitsuenek hartzen dute parte.

Basque Culinary Center erakunde arduratsua da gizarteak aurre egin behar dien erronkekiko. Garapen Jasangarri-rako Plan Estrategiko bat du. Plan hori bat dator GJHeK ezarritako erronkekin eta, bertan, erakundearen berdintasun-plana dago.

5.4

Ekintzailetzari laguntzeko beste zerbitzu batzuk

Leartiker

Leartikeren ikuspegia enpresasareari balioa ematea da, I+G+b jardueraren bidez eta Elikagaien Teknologian eta Polimeroen Teknologian transferentzia egokia eginda.

Nazioarteko ikuspegia du, lankidetzaren eredu batean oinarrituta; batik bat tokiko eremuan ezagutza, balioa eta lan jasangarria sortzeko konpromisoa duten pertsonen gauzatzen dute. Enpresei produktu berriak garatzen laguntzen die, negozio-aukera berriak bilatzeko aholkuak ematen dizkie eta lagundu egiten die, baita beren produktuak hobetzen eta dibertsifikatzen ere.

Leartiker Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko (ZTBES) kide da, eta Lea Artibai Ikastetxea S. Coop. eta MONDRAGON Korporazioaren proiektuaren parte da.

Euskadi lurralde industrialia eta ekintzailea da eta aukeraz betetako testuinguru batean dago; bertan, industria hazten ari da, testuinguru ekonomiko onean dago, eta esportazioek gora egin dute azken urteotan.

Gainera, lankidetzaren akordioak ditu Europako beste eskualde batzuekin hainbat jardueraren eremutan: I+G+b, ingurumena eta garapen jasangarria, nekazaritza eta elikadura, etab.

BIC - Business Innovation Centre

Euskadik 4 **BIC** (*Business Innovation Centre*) ditu, proiektu berritzaile bat duten enpresei eta enpresa-proiektuei (*prozesuei, produktuei, merkataritza-estrategiari eta abarri buruzkoak*) eta, oro har, kualifikazio altuko sustatzaileak (*banakoak edo taldekakoak*) zein langileak dituzten enpresei laguntzeko. Aholkularitza ematen dute baliabide ekonomikoak, teknologikoak eta prestakuntza-koak bilatzeko, behar duzun bideragarritasuna aztertze-ko edo laguntza publikoak bilatzeko. Halaber, espazioak eskaintzen dituzte jardueraren berriak garatzeko.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako BIC - Business Innovation Centersek enpresa berritzaileen eta oinarri teknologikoko enpresen sorrera eta inkubazioa bultzatzen dute. Honako hauek eskaintzen dituzte: proiektu berrien beharretara egokitutako kokapena, kudeaketatutoretza eta izaera teknologikoko tutoretza, hazi-kapitala lortzeko aukerak, lehentasunezko finantzaketak hainbat eragileekin lankidetzan, eta erakundearen laguntza programetarako sarbidea. Abian jarri zirenetik, zentro horiek 10.500 lanpostu enplegu sortu dituzten 2.000 enpresa sortzen lagundu dute eta 4.000 ekintzailereri baino gehiagori eskaini die babesa.

www.bicaraba.eus

www.bicgipuzkoa.eus

www.bicbizkaia.eus

Azeleratzaileak

Culinary Action! CA! BCCren azeleratzailea da, eta 2014az geroztik elikaduraren etorkizuna bultzatzen duten 74 ekintzailereri lagundu die, osagai berritzaile handiko produktuak (*prozesuak, lehengaia, output...*) edo industriako teknologia osagarriak (*makineria, softwarea, teknika...*) garatuz.

EIT FOOD azeleratzaileak berrikuntza bizkortzen du, etorkizunera egokitutako elikaduraren sistema bat eraikitze-ko, denontzat elikagai osasungarriak eta jasangarriak ekoizte aldera.

Berrikuntza ireki publiko-pribatuko BIND 4.0. programak ere badu balio-katean berrikuntza sustatzen duen Food bertikal bat. Ekimen horrek helburu bikoitza du: industriaren eraldaketa digitala bultzatzea eta, aldi berean, ekimen berritzaileen sendotzea bizkortzea, enpresa handien eta startup-en arteko lankidetzaren eredu bidez. 2016az geroztik, **BIND 4.0**k 130 startup-ek baino gehiagok bost edizioetan garatu dituzten 200 proiektu bizkortu ditu guztira. 2021ean SME Connection ekimena sortu du, enpresa txiki eta ertainei zuzendutakoa.

5.5

Beste plataforma teknologiko batzuk

Tecnalia

Espainiako ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko zentrorik handiena da, Europako erreferentea eta Basque Research and Technology Alliance erakundeko kidea.

Enprekin eta erakundeekin elkarlanean aritzen da bere lehiakortasuna eta pertsonen bizikalitatea hobetzeko eta hazkunde jasangarria lortzeko.

Tekniker

IK4 RESEARCH ALLIANCE du. Aliantza teknologiko pribatu bat da eta sei zentro teknologikok osatzen dute. Haren helburua da ezagutza zientifiko-teknologikoa sortzea, erakartzea eta transferitzea, inguruneke enpresasarearen lehiakortasuna hobetzen laguntzeko, berrikuntzaren bidez, lehiakortasunak markatutako testuinguru globalean.

Euskadik Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ) ere baditu. Gaur egun, bioGUNE, biomaGUNE, nanoGUNE eta energiGUNE izeneko zazpi IKZ ditu.



5.6

Unibertsitate eta lanbide-prestakuntza

Gazteen % 48,9k goi-mailako ikasketak ditu Euskadin. Pertsonen prestakuntza eta bikaintasuna funtsezko faktore estrategikoa da Euskal Autonomia Erkidegoaren lehiakortasunerako.

Euskadi ingeniartzako tituludunen per capita kontzentrazio handiena duen Europako eskualdea da.

Prestakuntza da etorkizun lehiakor baterako atea irekitzen dituen giltza. Horrela, bada, Euskadik hezkuntza-eredu argi eta hurbila garatzera bideratzen ditu bere ahaleginak, eta balioa eta kalitate-bermea ematen ditu. Pertsonen talentua garatzearen aldeko apustua indartu du, eta, ondorioz, etorkizunean kualifikazio handia izango duten eta etorkizunaren gidaritza hartzeko prestatuta egongo diren profesionalen mintegi bat biltzen du, bai tokiko eremuan, bai nazioartean. 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 48,9k goi-mailako ikasketak dituzte, Europar Batasuneko (% 37,9) eta Espainiako (% 42,3) batez bestekoa baino gehiago.

Euskal Autonomia Erkidegoa da ikasle bakoitzeko eta ikasgeletako hezkuntza-teknologian gehien inbertitzen duen autonomia-erkidegoa; izan ere, honako hauek ditu: hamar ikasletik zortzi hartzen dituen unibertsitate publikoa, hiru unibertsitate pribatu, Lanbide Heziketako ia ehun ikastetxe, nazioarteko bost eskola, hamar hizkuntza-eskola ofizial baino gehiago, munduko lehen Unibertsitate Gastronomikoa, Basque Culinary Center eta DigiPen, Institut of Technology Europe Bilbao.

Gaur egun, honakoa da unibertsitateen katalogoa:

Unibertsitate publikoak

Euskal Herriko unibertsitate publikoa, UPV/EHU

- Unibertsitate publikoa.
- Hiru campus: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.
- 30 fakultate eta ikastegi.
- 70 gradu, 2 gradu bikoitz, 113 master, 38 berezko titulu eta 65 doktoregoprograma.
- Euskadiko ikerketaren % 70aren arduraduna.
- Nazioarteko bikaintasuna.
- Campusa: Fundación Euskampus.
- Graduko eta graduondoko 48.380 ikasle.
- 5.019 irakasle eta ikertzaile.
- Nazioarteko Bikaintasun Campusa: Fundación Euskampus.
- Prestakuntza duala.

Unibertsitate pribatuak

Mondragon Unibertsitatea

- MONDRAGON Korporazioko unibertsitate pribatua 3 fakultate eta goi-mailako eskola politeknikoa.
- Ingeniaritza, Enpresa, Hezkuntza, Humanitate eta Gastronomia Zientziei (*Basque Culinary Center*) lotutako 25 gradutitulazio.
- 4.000 ikasle.
- 385 irakasle.

Deustuko Unibertsitatea

- Jesusen Lagundiak 1886 fundatua Unibertsitate pribatua.
- Hiru campus Bilbon, Gasteizen eta Donostian.
- 6 fakultate.
- 5.979 ikasle matrikulatu titulazio ofizialetan.
- Unibertsitate-master 1, 14 master profesional, unibertsitate-espezializazioko 8 diploma, unibertsitateko adituen 10 ikastaro, gradura egokitze 2 gradu eta 4 ikastaro, bai eta iraupen laburreko hainbat ikastaro ere, aurrez aurrekoak zein online, honako arlo hauetan: komunikazioa; kontabilitatea eta finantzak; kultura eta gizartea; enpresen eta erakundeen zuzendaritza eta kudeaketa; proiektuen zuzendaritza eta kudeaketa; industriadiseinua; gizarte-ekonomia eta kooperatibismoa; hezkuntza; elektronika eta energia; estrategia, ekintzailtza eta berrikuntza; gastronomia; industriakudeaketa eta antolamendua; informatika, telekomunikazioak eta sistema txertatuak; ingeniaritza mekanikoa eta fabrikazioprozesuak; lidergoa eta pertsonen kudeaketa; eta, marketin eta salmentak.

Nafarroako Unibertsitatea – Tecnun

- 1961ean fundatua.
- Unibertsitate Pribatua.
- Campusa Donostian.
- Ingeniaritza-Eskola Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparrura Egokitutako 9 Gradu.

Lanbide Heziketa

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketa da berrikuntza aplikatuaren ikaskuntza sartzeko EBren lehen saiakuntza-bankua. 140 heziketa-ziklo baino gehiago daude, alderdi estrategikoa baita Eusko Jaurlaritzaren agendan; izan ere, lanen % 65ek mota horretako lanbide-ziurtagiria behar dute.

Prestakuntza Dualeko Sistema nabarmentzen da. Sistema horrek enpresako eta Prestakuntza Zentroko ikaskuntza prozesuak konbinatzen ditu, eta honako hau lortzen du:

- Kualifikatutako eta enpresaren beharretara egokitutako pertsonak prestatzea.
- Enpresei eskulana kontratatzen laguntzea, bere behar espezifikoaren arabera.

Tknika

Tknika lanbide-heziketako berrikuntza-zentroa da. Sareko lanaren bidez, eta lanbide-heziketako irakasleen inplikazioarekin, zentro honek munduko eredu aurreratuena ditu erreferentetzat eta teknologia-, prestakuntza- eta kudeaketa arloekin lotutako berrikuntza-proiektuak garatzen ditu.

5.7

Enpresa-klusterra

Basque Food Cluster

Euskadiko elikadura-sektorearen dinamizazioan eta lehiakortasunaren hobekuntzan aurrera egiteko, klusterrak egiten duen lanaren helburua da Euskadiko elikadura sektorea dinamikoa, sortzailea, berritzailea, bikaina, nazioartekotua, jasangarria, lehiakorra eta enpleguaren eta aberastasunaren sortzaile gisa aitortua izatea lortzea. Elikaduraren Clusterrak elikadura sektoreko euskal enpresen lehiakortasuna areagotzen laguntzen du, eta, horretarako, balio handiko proiektu partekatuen garapena eta lankidetzaren dinamizatu eta sustatuko dituzten topaketa- eta harreman-espazioak ahalbidetzen ditu, eta enpresa horien eta beste eragile batzuen arteko elkarrizketa bultzatzen du.

5.8

Lotutako laguntza publikoko beste zerbitzu batzuk

Elika

Eusko Jaurlaritzaren erakundea da, eta ezagutza aditua ematen du Euskadin elikadura seguruagoa, osasungarriagoa eta jasangarriagoa lortzeko, eta euskal elikadura-ekosistemako eragile guztien arteko lankidetzaren ahalbidetzen du.

ELIKAK 4 helburu estrategiko ditu:

1. Euskadin elikagai-politikak definitzen eta hedatzen laguntzen du. Ezagutza aditua errazten du, Elikagaien Segurtasunaren arloko erabakiak hartzeko oinarri gisa.

- Elikagaien Segurtasuna hobetzeko planak eta programak bultzatu eta dinamizatzen ditu.
- Autonomia-erkidegoko araudia garatzeko eta hedatzeko aholkuak ematen ditu.
- Nekazaritzako elikagaien alertak kudeatzen eta jakinarazten laguntzen du.
- Elikadurarekin zerikusia duten sailen arteko eta erakundeen arteko proiektuetan hartzen du parte.

2. Elikagaien Segurtasunaren kultura zabaltzen du eta sektoreari laguntzen dio nekazaritzako elikagaien sistema jasangarrietarako trantsizioan. Elikakateko eragileekin foroak dinamizatzen ditu, Baserritik Mahaira Estrategia ezartzen laguntzeko.

- Elikakateko eragileentzako aholkularitza-zerbitzua indartzen du.
- Baliabideak garatu eta mantentzen ditu elikadura-politiken aplikazioa ahalbidetzeko Gaikuntza-ekintzak antolatzen ditu edo horietan parte hartzen du.

3. Euskal gizartea ahaldunduzten du elikaduraren arloan erabakiak hartzeko.

- Kontsumitzaileei zuzendutako elikadura-pedagogiako estrategia bat lantzen du.
- Ezagutza teknikoa sektorearen eta administrazioaren arabera egokitzen du.
- Informazio plataformen eta sareen azpiegitura kudeatzen du, bai eta argitalpen ildo komun bat ere.

4. Erakunde-eredu diferentzial aurreratua eta berritzailea bultzatzen du

- Zaintza Teknologikoa eta Adimen Lehiakorra optimizatzen ditu.
- Elikako talentua kudeatzen du.
- Kooperazio eta lankidetzaren harreman estrategikoak sustatzen ditu.
- Kudeaketa Ereduan aurrera egiten du.



Energiaren Euskal Erakundea (EEE)

Eusko Jaurlaritzak 1982an sortu zuen Energiaren Euskal Erakundea (EEE), eta hainbat garaitan garrantzi-maila ezberdinetan oinarrituta egon den energia-politikaren oinarriak ezarri zituen: energia-eraginkortasuna, energia-iturrien dibertsifikazioa eta energia berriztagarrien sustapena.

Eginkizun bikoitza du; batetik, Euskadiko Energia Estrategiak birjartzea, honako irizpide hauen arabera: hornidura-bermea, kostuen lehiakortasuna, jasangarritasuna eta garapen teknologikoa. Bestetik, estrategien garapenean aktiboki parte hartzea eta horietan xedatutako helburuak lortzen laguntzea.

SPRI

Horretarako, EEEK zerbitzua ematen dio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari, energiaren eta baliabide geologiko-meatzarien arloko jarduerak garatzen ditu, eta proiektuetan parte hartzen du, enpresak eta erakundeak inplikatur. Horrez gain, bere estrategiak gidatzen dituzten balioak eta mezuak zabaltzen ditu gizartean, jarduteko gaitasuna pertsonen kualifikazio teknikoan, konpromisoan eta lidergoan oinarrituta, bai eta baliabideen planifikazioan eta kudeaketa eraginkorrean ere. Enpresekin batera egiten du lan, arlo askotarako sarbidea ahalbidetzeko; horrela, negozioak finantzatzeko eta/edo hedatzeko modurik onena lortzen du, bai toki-mailan, bai nazioartean.

Euskal enpresari 8 arlo estrategiko hauetan laguntzen dio.



Hori bere sozietate eta ekimen espezializatuen bidez egiten du.

01.

SPRI Enpresen Garapenerako Agentzia

Euskal enpresa sustatzeko laguntzak eta tresnak.

02.

Basque Trade & Investment

Nazioartekotzeko Euskal Agentziak laguntza tekniko eta ekonomiko guztiak biltzen ditu, 17 bulego baino gehiagoko sarea du, eta 80 herrialde baino gehiagotan dago.

03.

Sprilur

Pabiloiak, industria-lurzorua, bulegoak, eraikin industrialak.

04.

Euskadiko arrisku-kapitala kudeatzea

ETE-entzako laguntza ekonomikoa, inbertsiofuntsak eta finantzen arloko aholkularitza.

05.

Business and Innovation Centres (BICs)

Enpresa berritzaile berriak sortzeko prozesuan laguntzen dute.

06.

Basque Cybersecurity Centre

Sektore profesionala indartzen du eta eraso informatikoei irtenbideak ematen dizkie.

Ihobe

IHOBE Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarrtasun eta Ingurumen Sailari atxikitako sozietate publikoa da, eta bere helburua ingurumena hobetzea da. Horretarako, ingurumen-irizpideak sartzen ditu sektore-politiketan, Euskadirentzat eta haren erakundeentzat lehiakortasun-balio jasangarria duen elementu gisa. Sustatzaile espezializatuak dira lurzorua babestuz, ekonomia zirkularraren, klima-aldaketaren eta jasangarritasunaren eta biodibertsitatearen arloetan.

Basque Green Deal

Europako Itun Berdearen eskutik Eusko Jaurlaritzak Euskadira helarazitako Basque Green Deal estratejiaren bultzatzaile nagusiak dira. Hauek dira ekonomiaren eta ingurumenaren arloko ibilbide-orri honen ardatz nagusiak: anbizio klimatikoa; energia garbia, segurua eta eskuragarria; Ekonomia Zirkularra, energiaefizientzia eta eraikuntza jasangarria; mugikortasun jasangarria; Baserritik Mahaira; eta Zero Kutsadura.

Innobasque

Innobasque Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile berezia da. Eusko Jaurlaritzaren ekimenez sortu zen 2007an, berrikuntza-politika berriak diseinatzeko, ezartzeko eta bultzatzeko laguntzeko.

Innobasqueko erakunde bazkideak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren oso ordezkari onak dira anitzak eta ugariak direlako, eta euskal I+G+b arloko inbertsioaren % 62 osatzen dute.

Innobasquek ia 1.000 erakunde ditu, besteak beste: enpresak (% 51), administrazioa (% 12), hezkuntza (% 11), zientzia eta teknologia arloko eragileak (% 9), bitarteko eragileak (% 7), gizarte-erakundeak (% 6) eta kideak (% 5).

Nabarmentzekoa da Innobasqueren enpresa bazkideen % 91 ETEak direla eta % 89k RIS3 sektore estratejikoetan jarduten dutela.



6.0


KONEKTAGARRITASUNA ETA LOGISTIKA

Euskadi Europako ardatz atlantikoaren erdian dago estrategikoki kokatuta. Kokaleku horrek, penintsulako merkatuen eta Europako gainerako merkatuen arteko igarobide gisa, erkidego hau honako hauek hartzen dituen eragin-eremu baten gune gisa kokatzen du:

- EBko 10 eskualde baino gehiago lotzen dituen 2.000 km-ko igarobidea.
- 80 milioi biztanle, euroguneko biztanleriaren % 25.
- 2 bilioi euro baino gehiagoko BPGd-a, hau da, euroguneko BPGd-aren % 30-40.
- Merkataritza-portuen arteko igarobide bat, urteko 650 milioi tonatik gorako trafikoa duten 60 portu baino gehiago.

Kokapenari eta lehen mailako logistika eta garraio-azpiegituren sareari esker (*elkarren artean eta Europako sare handiekin behar bezala lotuak eta koordinatuak*), Euskadi Europako hegomendebaldean salgaiak eta pertsonak garraiatzeko plataforma logistiko ordezkaezina da.

Euskadi Europara (*Europako ardatz atlantikoaren nodo logistiko gisa*) eta munduko gainerako eskualdeetara (*batez ere Latinoamerikara, non euskal enpresen eta erakundeen presentzia handia den*) sartzeko atea da.



6.1

Ezartzeko azpiegiturak

Bilboko Portua Europako merkatuan sartzeko Atlantikoko ibilbideko gune logistiko garrantzitsuenetako bat da. Itsaszerbitzu erregularren eskaintzak mundu osoko 800 portuekin lotzen du. 350 hektareako lur-azalaren du, eta, bertan, portuak garraio-kate multimodaletan eta sektore ugarian (*hala nola petrokimika, lehengaiak, elikagaiak, siderurgia eta abar*) espezializatutako eragile logistikoak ditu.

Bilboko Portuak era guztietako salgaiekin eta ontziekin egiten du lan. Urteko egun guztietan eta egunean 24 orduz dago irekita eta funtzionatzen du, sakonera edo marea arazorik gabe.

Pasaiaiko portua badia batek osatzen duen portu naturala da, itsasontziei babes osoa ematen diena. Hori dela eta, zamalanak segurtasun osoz egin daitezke urte osoan zehar, itsasoaren egoera edozein dela ere.

Portuekin batera honako hauek nabarmentzen dira:

Gasteizko aireportua (*Estatuko zama-aireporturik garrantzitsuenetako bat eta Europa hegoalderako DHL-ko HUBa*).

Bilboko nazioarteko aireportua, Espainiako iparraldeko aireporturik handiena da eta Europako hiri nagusiekin dago lotuta. Urtean 4 milioi bidaiari baino gehiago ditu.

Donostiako aireportua (*Hondarribian*).

Gainera, Euskadik abiadura handiko trenbide-sare berri bat du, bai eta Euskadiko azpiegitura multimodalaren sare integratua osatzen duten errepide moderno eta zabalena, etab. ere

6.2

Eremu estrategikoak

Euskadiko zientzia eta teknologia parkeak funtsezko tresnak dira, enpresak lehen aldiz instala daitezten ahalbidetzeko. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako parkeek (*guztira 6 campus dituzten hiru proiektuak*) honako hauek biltzen dituzte: ikerketazentroak, teknologiazentroak, berrikuntzaren eragileak, eta Euskadiko enpresa aurreratu eta puntu-puntakoetako batzuk.

Parkeak erreferentziatzeko lekuak dira industria-eremu nabarmenetako ikertzaileentzat; eta, bertan, ia 5.000 pertsonak jarduten dute I+G+b arloan. Kokapen bikaina eskaintzen dute, ingurune jasangarrietan eta kalitatezkoetan. Teknologia-parkeei lotutako jarduerak BPGd-aren % 5,5, enpleguaren % 5,4 eta enpresen zergabilketaren % 5,8 osatzen du. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako teknologia-parkeetan ia 430 enpresa daude, 16.000 lanpostu inguru eta 4.000 milioi eurotik gorako fakturazio bateratua dutenak.

6.3

Eremu logistikoak

Euskadiko Plataforma Logistiko Multimodalen Sarea Arasurrek, Jundiz-Forondak eta Pasaialrunek osatzen dute, eta sare horrek erantzun integrala eta ordenatua ematen dio salgaien garraioari. Hori lehiarako abantaila handia da.

ARASUR (RIBABELLOSA/ARABA)

Ezin hobeto dago konektatuta:

- Azalera: 200 ha (1 milioi m² pabiloi logistiko).
- Europar Batasunaren salgaientzako trenbide-igarobideen Katalogoaren barruan dago.
- Trenbide-loturak:
 - Madril-Irun-Paris, Lisboa-Irun-Paris, Bilbo-Bartzelona, Bilbo-Madril.
 - A-1/AP1 Irun-Madril, AP68 Bilbo-Zaragoza, E-70 eta E-80.
 - Salgaien errepide bidezko trafikoa trenbidera aldatzeko aukera ematen du, IparHegoalde/Ekialde-Mendebalde ardatz bikoitzean.
 - Bilboko portuari ematen dio zerbitzua.

JUNDIZ (VITORIA-GASTEIZ)

Irtenbide integralak eta integratuak:

- Azalera: 48 ha.
- Kokapena: A-1erako eta N-1erako sarbide zuzena, errepide-ardatz europarra, E-70 Madril Paris.
- Madril-Hendaia-Paris trenbidea.
- Forondako aireportuarekin lotuta, Penintsulako iparraldeko aireko karga-nodoa.
- Nodoen, hegazkinaren, errepidearen eta trenbidearen arteko transferentzia-puntu intermodala da.
- Euskadiko etorkizuneko trenbide-sare berrirako sarbidea, nazioarteko zabaleran.
- Bilboko eta Pasaiaiko portuei ematen die zerbitzua.
- ADIFen Jundizeko geltoki intermodalarekin lotuta: 718.141 m²
- Jundizeko Industria Parkearen barruan dago (7.000.000 m²).
- 120.000 m² industria-partzela; trenbide-adarra du.
- 3 kalitate zigilu: ISO 9001, ISO 14001 eta OHSAS 18001.
- Honako hauetatik sarbide zuzena: AP-1/A-1/E-80/E-05/N-1/AP-68/E-804.

• PASAIA-IRUN

Trenbideko konbergentzia-zentro bikaina:

- Europar Batasunaren salgaientzako trenbide-igarobideen Katalogoaren barruan dago.
- Pasaiaiko portuaren ondoan.
- Zabalera hirukoitz iberikoaren sarea – UIC – metrikoa.
- Sarbidea: Paris-Madril ardatza (N-1 eta A-8/AP-1) –A-8 autopista; Nafarroako sarbidea eta Ebro Harana – A-15 autopista.
- Trenbideko ontzi-aldaketa intermodala osatuko du zabalera artean (*iberikoa, UIC eta metrikoa*).
- Trenbide-trafikoaren ontzi-aldaketak ahalbidetuko ditu Iparralde-Hegoalde ardatzaren barruan eta Nafarroa-Ebro Haranera.

Euskadiko eskaintza logistiko handiaren barruan hau nabarmentzen da: **VIAL – Gasteiz Araba Konponbide Logistikoa**. 9 milioi metro karratutik gorako azalera-ekin, Europako hegomendebaldeko espazio logistiko garrantzitsuena da, eta funtsezko kate-begia izan nahi du kate logistikoan.

7.0

LAGUNTZA INSTITUZIONALA

7.1

Esparru instituzionala

Euskadiko nekazaritza elikagaien ekosistema



7.2

Inbertsiorako laguntza publikoak

Lehiatu Berria

Nekazaritza- eta elikadura-produktuak eta arrantza eta akuikulturatik eratorritako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko laguntzak. Laguntzak inbertsioprograma batera egokituko dira; hori urtekoa edo urte anitzekoa izan daiteke, aurkeztutako proiektuen egikaritze-epearen eta ordainketak egiteko unearen arabera.

Bost laguntza-lerro daude:

1. Nekazaritzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioetarako laguntzak.
2. Basogintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioetarako laguntzak.
3. Arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioetarako laguntzak.
4. Gainerako ataletan sartzen ez diren Euskadiko nekazaritza- eta elikadura-industrietan inbertsioak egiteko laguntzak.
5. Produktu ekologikoak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak.

Lehiatu sustapena

Hainbat sektore eta proiektutako inbertsioei laguntzea:

1. Nekazaritza-jatorriko produktuen eraldaketa, merkaturatze eta garapenera bideratutako inbertsioak.
2. Baso-jatorriko produktuen eraldaketa eta merkaturatzera bideratutako inbertsioak.
3. Arrantza- eta akuikultura-produktuen eraldaketa eta merkaturatzera bideratutako inbertsioak.
4. Gainerako ataletan sartzen ez diren Euskadiko nekazaritza- eta elikadura-industrietan inbertsioak.
5. Produktu ekologikoak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak.

MAE mahastizaintza -eta ardogintza-sektoreko inbertsioa

Mahastizaintza -eta ardogintza- sektoreko enpresen etekin orokorrak hobetzeko, merkatuaren eskakizunetara egokitzeko eta, halaber, beren lehiakortasuna areagotzeko laguntzak. Horrez gain, mahastizaintza eta ardogintza-ko azpiegituran eta eraldaketa-instalazioetan inbertsio hautemangarriei nahiz hautemanezinei finantzialaguntza ematea, baita merkaturatzeko egitura eta tresnei ere, edota energiaaurrezpena, eraginkortasun energetiko orokorra eta prozesu iraunkorrak hobetzekoei.

Ardoa Inb

Mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko inbertsio-proiektuak babesteko laguntza, baldin eta ez badituzte artatu MAE inbertsioa 2022 deialdian, mahastizaintza-eta ardogintza-sektoreari laguntzeko programa nazional- lei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1308/2013 (EB) Erregelamenduari eta Espainiako mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreari laguntzeko 2019-2023 programaren neurriak aplikatzeari buruzko urtarilaren 12ko 5/2018 Errege Dekretuarekin bat.

MAE sustapena

Mahastizaintzako eta ardogintzako ekoizleen lehiakortasuna handitzeko eta ardoen kalitatea egonkortzeko laguntza, ardogintza-produktuen informazio- eta sustapenekintza eta -programak babestuz hirugarren herrialde- detako merkatuetan.

Basque Wine Sustapena

Mahastizaintzako eta ardogintzako ETE-ei zuzendutako laguntzak, barnemerkatuko sustapenerako (*Estatua*).

Gastrobikain

Gastronomiaren eta elikaduraren sektorean estrategi- kotzat jotzen diren ekimen gastronomikoei dirulaguntza emateko laguntza, bi inbertsio-lerroren bidez:

1. Berriki titulua lortu dutenek gastronomia-negoio berriak irekitzea.
2. Ospe handiko sukaldaritza-negoioen bikaintasuna sendotzea.

ONekin!

Elikaduraren eta zuraren balio-kateko enpresa eta ekin-tzaileentzako laguntzak, ekintzailtza, berrikuntza eta eraldaketa digital ez errepikakorrean espezializatutako aholkularitzaren kostuen zati bat ordaintzeko.

Berriker I+G+b-rako laguntzak

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-, basogintza-, arrantza- eta akuikultura-sektoreetan ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatu eta sustatzera bideratutako laguntzak.

Lankidetz

Nekazaritza, elikadura eta basogintzaren eremuetan gutxienez bi entitateren arteko lankidetz

sustatzeko helburua dute laguntza hauek: Berrikuntzaren Europako Elkarteko Talde Eragileak sortzea eta funtzionatzea; produktu, jarduera, prozesu eta teknologia berriak garatzea; prozesu komunak antolatzea eta eragile txikien artean instalazioak eta baliabideak partekatzea; banaketa-kateko eragileen artean beren produktuak merkaturatzea eta sustatzea; elkarrekin jarduerak egitea, klima-aldaketa murrizteko edo horretara hobeto egokitzeko; elikagaiak eta energia ekoizteko eta industria-prozesuak garatzeko biomasaren hornidura iraunkorra egitea.

Elikadura-digitalizazioa

Elikaduraren eta zuraren katean digitalizazioa txertatzen eta sustatzen laguntzea, industria horren lehia-kortasuna hobetzeko eta baliabideak optimizatzeko, laguntza bikoitzaren bidez:

- Digitalizazioan hasteko prozesuak, sistema digitalak txertatzearen bidez.
- Digitalizazio-prozesu aurreratuagoak, 4.0 teknologia txertatuz.

Ikertalent beka

Ikertzaileen (*doktore-tesiak egiteko*) eta teknologoien prestakuntza, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo zientifiko-teknologikoetan eta nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-sektoreko merkatu, marketin eta enpresa-antolakuntzan garatu beharreko I+G+b proiektuetan sartuz eta parte hartuz:

- Ikertzaileen programa: 12 beka.
- Teknologoien prestakuntza-programa: 10 beka.


Bioekonomia

Berrikuntza-proiektuak bultzatu eta sustatu nahi ditu bioekonomiaren arloan, bi lerroren bidez:

- 1. lerroa, proiektu pilotuak garatzeko laguntzak.
- 2. lerroa, frogazko proiektuak garatzeko laguntzak.

Sendotu

Elikaduraren eta zuraren balio-kateko enpresen aktibo finkoetan inbertitzeko berme onuragarrien maileguak.



Inbertsio-funtsak

Easo Ventures

Donostian kokatutako arrisku-kapitalaren enpresa pribatua, hainbat funtsekin merkatuan.

Talde arrisku-kapitala

Taldeak 350 milioi euro baino gehiago kudeatzen ditu, bai kapital pribatukoak eta bai zor pribatukoak. Horrez gain, zor pribatuko eta higiezinako estrategia berrietarako bilketa-faseko 150 milioi euro ere kudeatzen ditu.

All Iron

Jon Uriarte eta Ander Michelena *“Ticketbis”* plataformaren sortzaileek sustatutako inbertsio-tresna da. Haren eragiketa-eremua Euskaditik harago doa, eta taldean Robert Nowak sartu da, Delivery Hero eta antzeko inbertsioen sortzailea. All Ironek 66,5 milioi euroko funtsa du, eta 30 enpresetako partaidetzak hartu ditu; orain, beste horrenbeste bilatu nahi ditu, 35 milioi euro baitaizka inbertitzeke.

Mondragon Korporazioa

Mondragon taldeak –91 kooperatibak eta 141 filialek osatzen dute– bat egin du lau bankurekin (*Laboral Kutxa*, *BBVA*, *Santander*, *Caixabank*) eta Eusko Jaurlaritzarekin, Mondragon Garapena arrisku-kapitalaren funtsa sortzeko.

Tresna berri horrek hazten ari diren enpresetan inbertituko du, eta 2020an abiarazi zuten 30 milioi euroko baliabideekin. Guztira, kudeatzaileek 30 enpresa bultzatu nahi dituzte datozen lau urteetan, 5 milioi eurora arteko inbertsioekin.

ABE Capital Partners

Kapital pribatuko funtsen kudeatzaile honen helburua da epe luzeko inbertsioak egitea hazteko potentzial handia duten enpresa txiki eta ertainetan.

Finkatu duen helburua da 200 milioi euro lortzea *“proiektzio handiko”* enpresak sustatzeko, eta enpresen % 50 Euskadin egoteko konpromisoa dute.

Family Office inbertsio-bulegoak

Aukerak bilatzeko orduan, enpresarien eta enpresari-familien inbertsio-bulegoak geroz eta garrantzi handiagoa ari dira lortzen. Ondarea duten enpresari eta kudeatzaileak dira, eta alternatibak ari dira bilatzen, errentagarritasuna lortzeko eta etorkizuneko ideiak garatu ahal izateko. Euskadin lan egiten dutenen artean gaitasun handiko batzuk daude, adibidez Onchena (*Ybarra Careaga familiaren ondarea kudeatzen du, eta eragiketa korporatibo garrantzitsuak egin ditu, besteak beste MásMóvil, KKRn sartu zenean*), Cinven eta Providence, eta berrienen artean Solarpack. Hau ere azpimarratu behar da: Eneko Knorr.

Zigilu publikoa duten funtsak

Inbertitzaile eta enpresentzako beste alternatiba batzuk erakundeen ekintzaren ausaz garatzen ari dira.


Hazilur Elikaduraren eta zuraren sektorerako Euskadiko funtsa. Senior zorrera bideratutako ekimen publiko-pribatua da.

Zigilu publikoa duen beste alternatiba bat da Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimen hau: **‘Bizkaia Seed Capital’**, **Elkargi**-rena, eta berrikuntza-funtsaren bidez eragiketa interesgarriak egiten ditu.

Ezin dugu ahaztu **SPRIren Arrisku Kapitala**, arrisku-kapitalaren erakundeen sozietate kudeatzailea. Eusko Jaurlaritzak sortu zuen 1985ean, SPRIren bidez, Euskadin Arrisku Kapitalaren jardura sustatu eta garatzeko.

Enpleguko BGAE-en kudeaketan zentratuta, **Geroa** dago, Adegí Gipuzkoako patronalak eta haren BGAEak sustatutako inbertsio-funtsa.

Ildo horretan ari dira lanean Eusko Jaurlaritzako funtzionarioen BGAEak (**Itzarri**), eta foru-aldundi eta udaletako langileena (**Elkarkidetza**).



Pizgarri eta kenkari fiskalak

Euskadik autogobernu-maila handia du osasuna, hezkuntza, segurtasuna, etxebizitza, ogasuna eta antzeko gai garrantzitsuetan, Gernikako Estatutuari esker, hura baita autogobernuaren funtsezko zutabeetako bat.

Euskadiko autogobernuaren beste funtsezko zutabeetako bat “Kontzertu Ekonomikoa” da, hau da, Autonomia Er-kidegoaren finantza-euskarria; Euskadiko erakundeei autonomia ematen die herritarren zergak bildu eta administratzeko, beren aurrekontu propioen eta Espainiako Administrazioarekin sinatutako akordioen arabera.

Inguruabar horiei esker, erakunde propioak sortu ahal izan dira, besteak beste EITB - Euskal Irrati Telebista eta Ertzaintza, 8.000 agente baino gehiago dituen polizia-kidego autonomikoa. Horrez gain, eskumen osoak ditu errepide-azpiegiturretan eta hidraulikoetan, sustapen ekonomiko eta industrialean, eta lurraldearen antolakuntza eta osaeran.

Arlo fiskalean, Euskadik arau- eta kudeaketa-gaitasuna du finantza-sistema propioari esker. Euskadiko administrazio publikoek hainbat tresna garatu dituzte enpresa-garapena, enpresen sorrera eta I+G+b proiektuak indartzeko: enpresa baten bizi-zikloko etapa bakoitzeko funts publiko espezifikokoak, enpresetan inbertitzeko funts pribatu proaktiboak eta pizgarri eta kenkari fiskalak.

Euskadik neurri ekonomiko eta fiskalak aplikatzen ditu ekosistema ekonomiko propioa finkatzeko, honako hauekin lotuta: kenkari eta pizgarri publikoak, ikerketa eta garapena, berrikuntza, inbertsioak, enplegua, etab. Horrek berekin dakartza:

ZERO ZIURGABETASUN

- Kontsulta fiskalak.
- Ordainketa aurreratuaren proposamenak.

GERTUTASUNA ETA ARINTASUNA Foru-aldundia administrazio arin eta solidarioagoa da lurraldearen ezau-garriengatik.

FISKALITATE BIKOITZA EKIDITEA Bizkaiak hitzarmenen onura lortzen du Espainiak beste herrialde batzuekin sinatutako inposizio bikoitza ekiditeko.

GARDENTASUNA Foru Ogasuna AGINTARITZA FISKAL GARDENA da.

- Pizgarri eta abantaila fiskalak egoiliar bihurtzen diren pertsona deslokalizatuentzat.
- Lehen mailako helmuga ikuspuntu fiskaletik, bereziki I+G edo IT proiektuak egiten dituzten enpresentzat eta kualifikazio handiko langileentzat.

ENPRESA BATEN BIZI-ZIKLOKO ETAPA BAKOITZERAKO FUNTS PUBLIKO ESPEZIFIKOAK

Aurrerakin itzulgarriak.	Prestakuntza okupazionala.
Interes txikiko maileguak.	I+G proiektuetarako dirulaguntzak.
Pizgarri fiskalak.	Ezarpenera teknologia-parkeetan.


ENPRESETAN INBERTITZEKO FUNTS PRIBATU PROAKTIBOAK

Elkar bermatzeko sozietateak.	Funts espezifikokoak.
Finantza-erakundeak.	Business Angels sarea.
Erakunde soziala.	Hazi-funtsak.

PIZGARRI ETA KENKARI FISKALAK*

* Estatuko gainerako eskualdeetan baino onuragarriagoak

Zerga orokorra: % 28 - % 24 ETE-entzat



Mikroenpresetan, enpresa txiki, ertain edo berritzaileetan eta Silver Economy arloarekin lotutakoetan inbertitzeagatiko kenkarien laburpen-taula:

2022ko ERRENTA	GIPUZKOA		BIZKAIA Y ARABA	
Enpresa mota	Micro + ETE	Berria edo duela gutxi sortutakoa	Berritzailea	-
Kenkariaren %	10%	15%	%20	% 25 edo % 30 berritzailea edo Silver Economy bada
Urteko gehieneko oinarria	100.000 EUR	150.000 EUR	200.000 EUR	-
Erosteke gehieneko epea		5 urte	7 urte	5 urte edo 7 berritzaileak badira*
Iraunkortasun epea		5 urte		
Lotura	Lotutako bazkideen parte-hartzea % 25era mugatuta			

*7 urteko epea ezin da eskatu arrisku-finantzaketaren hasierako inbertsioa behar duten erakundeetan inbertitzean, merkatu geografiko berrietan sartu nahi badute, edo aurreko 5 urteetako urteko eragiketa-bolumenaren batezbestekoa baino % 50 handiagoak diren produktu berrien kasuan.



8.0

BIZITZEKO HERRIALDE BAT

Tradizioa eta berrikuntza, historiaurrea eta abangoardia, berdea eta urdina. Euskadik munduari begiratzeko modu berezia du, kolorez, usainez eta zaporez betetako lurralde txikitik; horiek etorri, ezagutu eta esperientzia bereziak izatera gonbidatzen dute.

Euskadik bizi-kalitate handiko tokia da, hezkuntza-sistema propioa du, eta nazioarteko hizkuntzen ezagutza handia du. Osasuna ere aurreratua da, publikoa eta unibertsala izateaz gain; horri esker, Europako onenetako bat da.

Euskadi lurralde berezia da arlo sozialean, ekonomikoan, industrialean eta kulturean. Euskadi bizitzeko eta inbertitzeko toki erakargarrietako bat da garapen sozial eta ekonomiko orekatuari, bikaintasuna bilatzeari, hiriak eraldatzeko prozesuei, enpresen nazioartekotzeari, berrikuntzaren aldeko apustu irmoari eta munduko onenen artean egoteari esker.

Osasun-azpiegitura zabala du, eta herritarren beharrak estaltzen ditu Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren bidez (*Eusko Jaurlaritzaren mendeko zerbitzu publikoa*) eta zentro pribatuen bidez. Euskadiko Hezkuntza Sistemari, eskolaratzea nahitaezkoa da 6 urtetik aurrera, eta doakoa 3 eta 16 urte artean. Euskadik eskola uztearen tasa txikienetako bat du 18 eta 24 urte arteko gazteen artean (% 6,5). Segurtasunari dagokionez, Europako lurralde seguruenetako bat da, eta tasa 26,83 delitukoa da 1.000 biztanleko.

Kultura

Euskadik bizirik mantendu du bere hizkuntza, euskara, Europako hizkuntza zaharrena eta kultura propioa eta bereziaren ezaugarri nagusia.

Kulturak Euskadiko txoko guztiak zeharkatzen ditu, lehen mailako jaialdiekin, besteak beste Donostiako Zinemaldia, Gasteiz, Getxo eta Donostiako jazz-jaialdiak eta Bilboko opera denboraldia. Arabako Errioxa eskualde berezia da. Kolore gorri eta okreek margotzen dute lurralde, bertako ardoa eta herriak. Upategi tradizionalak eta arkitekto handiek amestutako upategiak. Mahastiz betetako 12.700 hektareek beren ardoak eskaintzen dituzte, mundu-mailan onenetakotzat jotako jatorri-deiturarekin.

Tradizioak eta berrikuntzak bat egiten dute forma eta koloreen nahasketan. Euskadi ezagutzea euskaldunak ezagutzea da, bizi-estilo bat, izateko eta ulertzeko, historia, modernitatea, ausardia, nobletasuna, festa eta lan gogorra batzen dituena.

Gastronomia

Arzak, Berasategi, Subijana, Atxa, Aduriz eta lehen mailako beste sukaldari askok Euskadi mundu osoan Michelin izar gehien dituen lurraldea bihurtu dute: 33 guztira.

BCC (*Basque Culinary Center*) munduko lehen unibertsitate gastronomikoa da, elikadura eta gastronomiako ikerketa- eta berrikuntza-zentroa, sukaldaritzaren jarraitutasuna bermatzeko apustu garrantzitsuena, berrikuntzarako, goi-mailako ezagutza sortzeko eta profesional kualifikatuak prestatzeko polo gisa.

Natura

Euskadiko mendi eta bailarak eta horiek apaintzen dituzten herriak bizirik jarraitzen duten milaka urteko historia eta tradizioen isla dira. Natura-agertoki paregabeen berdea nabarmentzen da, ñabardura guztietan, eta haren inguruan sortzen den bizitza.

Euskadiko 250 km-ko kosta hondartzek, itsasadarrek, padurek, amildegiek eta arrantzale-herriek osatzen dute, haien izaera malkartsu eta eskuzabalarekin eta itsaso bizi eta urdinarekin. Kostan flyscha nabarmentzen da, milioika urteko historia geologikoa duen formazio apetatsua; informazioa ematen du azken 50 milioi urteetako aldaketa biologiko, geologiko eta klimatikoei buruz.

Kirolak eta tradizioak

Euskadiko herritarrek lanaren luzapen bihurtu dute maiz euren aisialdia. Horren ondorioz, Euskadiko landa-kirolaren modalitate guztiek lotura dute baserrietako ohiko lanekin. Gainera, euskal pilota (*Jai-Alai*), arrauna, txirringularitza eta antzeko kirol tradizionalak toki berezia dute urteko kirol-agendan, baita nazioarteko kirolek ere, besteak beste futbolak, saskibaloiak, golfak eta surfak.




Artea

Adierazpen artistiko zaharrenetatik museo abangoar-distenetara, Euskadik balio kalkulazineko altxorrak ditu, eta horrek nortasun berezia ematen dio. Lurraldearen garapen ekonomikoarekin lotutako museo tematikoak ditu, besteak beste Burdinbidearen Museoa eta Meatzaritza Museoa; nazioartean ezagunak diren museoak ere baditu, adibidez San Telmo, Arte Ederrak edo Euskadi museoen munduko mapan ipini dutenak:

Bilboko Guggenheim Museoa XX. mendeko kultura-proiektu handinahienetako bat da. 1997an ireki zituen ateak, eta hiriaren erabateko eraldaketaren lehen urratsa izan zen. Bilbo berriaren sinboloa da. Museoaren bilduma iraunkorrek barne hartzen ditu, funtsean, azken lau hamarkadetako artista ospetsuenen obrak, eta Solomon R. Guggenheim Foundation erakundeak utzitako funtsek eta Fundazioaren programazio bereziek osatzen dute.

Cristóbal Balenciaga Museoa Getariako diseinatzaile ezagunari buruzkoa da, nazioarteko goi mailako jantzigintza jeinutzat jotzen dena. Museoak bi eraikin ditu: batetik, Aldamar jauregia; XIX. mendean eraiki zuten, eta aldi baterako erakusketak eta dokumentazio-zentroa jasotzen ditu. Bestetik, lotutako eraikin berria dago. Cristóbal Balenciaga Museoaren bilduma 1.600 pieza inguruk osatzen dute, eta Balenciagaren sorkuntzen munduko bildumarik handiena izateaz gain, garrantzitsuena ere bada.

Artium museoa eta kultura-jardueren zentroa da, eta haren helburuak dira ondare garaikidea bildumatu, ekoinzi, zabaldu, ikertu eta transmititzea, kultura garaikidean heztea eta esperientziak garatzea gure garaiko sorkuntzaren inguruan. Egungo artearen eta kulturaren esperientziaren bidez, Artiumek gizartearen kontzientzia kritikoa garatzen du, eta Araba eta Gasteizen irudia proiektatzen du, garaikidea eta arte eta kulturarekin konprometituta.



EUSKADI

BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE